

## BRT MENDITARRAK 20 – 12 UNI BILBO

Larunbatean Lekarozen ikusi ahal izan genuen denboraldiko partida garrantzitsuenetako bat eta bertan egon ziren eguzkia, ikusleak eta elkarri begira bi talde, lehia bizian. Partida bero-bero heldu zen sailkapeneko goitiko postuen talkek txinpartak ateratzen ari baitituzte. Hirugarren postuan ziren bilbotarrak eta puntu berdin-berdinekin, 42, laugarren postuan, mendialdeko ahariak. Gainera txuri-gorriek egorra eman zieten ahariei joaneko partidan, Bizkaiko hiriburuan, 35-5 errez batekin nagusitu baitziren. Baino Lekarozko *campusa* gotorleku bihurtzea lortu zuten bertze behin etxekoek: oraindik ez dute lehiarik galdu etxean. BRT 20, Bilbo 12.

Harmailak beterik eta hogeita hamar jokalariak prest zirela hasi zen lehendabiziko zatia. Bilboko partidan *Ierroarekin* ikaragarrizko mina egin zuten eta hasieran bisitariek zenbait jokaldi arriskutsu egin zitzuten defentsa hautsiz. *Avant* pare bat esker izan ez balitz, haiak jarri izanen lirateke aitzinetik markagailuan. Baino oraingoan etxekoak lezioa ongi ikasirik eta aunitz hobeturik ziren: zelaian ongi zabaldu eta murru sendo bat osatu zuten urdinek. Desesperaziao hedatzen hasi zen bilbotarren artean eta defentsaren presio handia gainditu ahal izateko hanka erabiltzen hasi ziren. Halaxe etorri ziren lehendabiziko hiru puntuak hamahirugarren minutuan, hamahirugarren dortsala zeraman Aitor Adinek zigor kolpe bat makilen artean sartzerakoan. Eta bera izan zen partidako protagonista handietako bat, hiru minutu beranduago lehenengo entsegua lortu baitzuen bizkaitarren ostikada batibidean itxi eta errebotea harturik baloia entsegu-eremuraino eraman zuanean. BRTren momentu onenetakoak izan ziren horiek eta 31. minutuan bigarren entsegu bat ere eskuratu zuten, Eñaut Beristain uztartze-erdilariaren sinadurarekin kasu honetan.

Arazoak partidaren erdi tenorean etorri ziren, diziplina-akats batzuen ondotik entsegu lortu baitzuten. Atsedenaldira nahi baino urduriago joan ziren, hortaz, ahariak, eta itzulera ere kolpe gogorra izan zen: baloia jokoan paratu eta jokaldi berean, bizkaitarren hegalkizunak entsegu egin zuen. Markagailua 17-12, Bilbotarrak goranzko joeran eta 40 minutu aurretik. Erronka gogorra zen, baina defentsa ordenatu bat eta *melé-etan* aurrelariek egindako lanari esker, balioaren posesioa izatea lortu zuen BRTk. Markagailua puzteko aukera ugari izan zitzuten, baina zortea zigor kolpe bakar batean izan zuten, 58. minutuan. 20-12 jarri eta akabaila neketsu baten ondoren, BRTk partida irabaztea lortu zuen jokalarien alaitasun eztanda artean.

Partida on horri esker ahariek Bilbo gainditzea lortu dute eta orain hirugarrenak dira sailkapenean 46 punturekin. Gainean errioxarrak, 48 punturekin, eta urrunago Elorrio 64rekin. Durangon izanen dute hurrengo hitzordua nafarrek, goiko postuetan ongi finkaturik baina denetarik gertatu daitekeen liga batean.

## BRT MENDITARRAK 20 – 12 UNI BILBO

El sábado pudimos ver en Lekaroz uno de los partidos más importantes de la temporada y allí se reunieron el sol, un cada vez más numeroso público y dos equipos mirándose cara a cara, en un intenso duelo. El partido llegó echando chispas. Los bilbaínos llegaban terceros y con idénticos puntos, 42, en cuarta posición, los carneros. Además los rojiblancos dieron leña a Menditarrak en el partido de ida, en la capital vizcaína, ya que se impusieron con un holgado 35-5. Sin embargo, una vez más, los locales consiguieron convertir el campus de Lekaroz en un fortín. BRT 20, Bilbao 12.

La primera parte comenzó con las gradas llenas y los treinta jugadores preparados. En el partido de ida los vizcaínos hicieron un daño tremendo con la línea y al principio los visitantes realizaron varias jugadas peligrosas rompiendo la defensa. Si no hubiera sido gracias a un par de *avants*, ellos se hubieran puesto por delante en el marcador. Pero esta vez los de casa habían aprendido bien la lección y mejorado mucho: los azules se desplegaron bien en el campo y formaron un sólido muro. La desesperación comenzó a extenderse entre las filas bilbaínas que empezaron a utilizar la pierna para poder superar la fuerte presión defensiva. Así vinieron los tres primeros puntos en el minuto trece, cuando el número trece Aitor Adín consiguió pasar entre los palos un golpe de castigo. Y él fue uno de los grandes protagonistas del partido, ya que tres minutos más tarde logró el primer ensayo al taponar una patada de los vizcaínos y llevarse el balón rebotado hasta la zona de las alegrías. Esos fueron algunos de los mejores momentos del BRT ya que en el minuto 31 cosecharon un segundo ensayo, en este caso con la firma del medio de melé Eñaut Beristain.

Los problemas llegaron a mitad del encuentro, ya que tras varios errores disciplinarios lograron su primer ensayo. Los carneros se marcharon al descanso más nerviosos de lo que querían, y la vuelta no fue para menos: el balón se puso en juego y en la misma jugada, el rápido ala de los vizcaínos consiguió realizar su segundo ensayo. El marcador se ponía en 17-12, con los bilbaínos al alza y 40 minutos por delante. Era un reto duro, pero gracias a una defensa ordenada y al trabajo de los delanteros en los melés, el BRT logró mantener la posesión del balón. Dispusieron de numerosas ocasiones para inflar el marcador, pero tuvieron la suerte en uno solo de los golpes de castigo, en el minuto 58. Poniéndose 20-12 y tras un exigente final, el BRT logró llevarse el gato al agua.

Gracias a este buen partido los carneros han logrado superar al Bilbao y ahora son terceros en la clasificación con 46 puntos. Por encima los riojanos, con 48 puntos, y más lejos Elorrio con 64. La próxima cita de los navarros será en Durango, en una liga en la que, aunque asentados en los puestos de arriba, puede pasar de todo.